

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2019

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen joan den maiatzaren 27an Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kudeaketa ekonomikoaren eta finantzarioaren fiskalizazio-txostena, 2019ko ekitaldiari buruzkoa.

2019ko **urteko kontuei** dagokienez, Epaitegiak **aldeko** iritzia plazaratu du.

Halaber, ondorioztatu du 2019ko ekitaldian Partzuergoak zuzentasunez **bete duela** jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen **lege-araudia**; ordea, kontratuak mugaeguneratu ostean bost kontraturen gastua egikaritzen jarraitu du.